

EPAIMAHAIAREN OHARTARAZPENA

Nafarroako Unibertsitate Publikoan Euskarako oinarrizko lanpostuko teknikari izateko 3 lanpostu betetzeko deialdiak

2249/2022 EBAZPENA, 2022ko azaroaren 15ekoa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko kudeatzaileak emana, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Euskarako OLko teknikari izateko hiru lanpostu (A maila) sarrera-prozeduraren bidez betetzeko deialdiak onesten dituena. Lanpostuetako bat oposizio-lehiaketaren sistemaren bidez beteko da, eta bi lanpostu oposizioaren sistemaren bidez.

Lehenbiziko probari buruzko oharra

1.-Eguna eta tokia:

Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko argitaratu zen ebazpenean ageri den bezala, oposizioaren lehenbiziko proba **2024ko urtarrilaren 12an** izanen da, **ostirala, 10:00etan**, Nafarroako Unibertsitate Publikoko **ikasgelategian, Iruñeko Arrosadiko campusean, zehazki A-310 ikasgelan**.

Izangaiek Nortasun Agiri Nazionala, AIZ, pasaporte edo gidabaimena aurkeztu beharko dute.

2.-Praktikoa da proba, eta bi ariketa izanen ditu:

a) Lehenbiziko ariketa: gaztelaniatik euskarara itzultzea epaimahaiak emandako testuak. Probari dagokion gehieneko puntuazioa 19 puntu da.

b) Bigarren ariketa: euskaratik gaztelaniara itzultzea epaimahaiak emandako testuak. Probari dagokion gehieneko puntuazioa 6 puntu da.

Bazterturik geldituko dira bi ariketetako batean gutxienez puntuazioaren erdia lortzen ez dutenak.

Itzuli beharreko testu guztiak emanen dira hasieran, eta guztira **hiru ordu izanen dira (180 minutu)**, etenik gabe, izangaiak nahi bezala banatzekoak ariketak egiteko.

3.-Probaren ezaugarriak:

Word dokumentu batean egonen dira itzulgaiak, eta ordenagailuan itzuli beharko dira, **Interneteko konexiorik gabe**. Izangaiak **hiztegi bat** eramaten ahal du probara, paperekoa.

Iruñean, 2023ko abenduaren 18an.

Epaimahaiburua eta epaimahaiko kide idazkaria.

Fernando Rey eta Irati Bereau